

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Leaburu



Aurkibidea

Udalerria: Leaburu

Sarrera



Leaburu Gipuzkoako ekialdean eta Tolosaldeako eskualdean dagoen herria da. Iparraldean Ibarra eta Belauntza, hegoaldean Altzo eta Lizartza, ekialdean Gaztelu eta mendebaldean Tolosa udalerriak mugakide ditu. Bi auzo nagusitan banatuta dago herria: alde batetik Leaburu jatorrizko herrigunea eta bestetik, Txarama, Araxeseko ibarrean dagoena. Araxes ibaiak udalerria zeharkatzen du Lizartzatik etorrira eta Tolosarako bidean, Erroispe mendiaren magalean. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAKo (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da.

- **Biztanleak:** 362
- **Euskaldunak:** %83,52

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **6**
- Zintak: **5**
- Pasarteak: **27**
- Transkribatutakoak: **4**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **27**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Maria Albizu Irizar (1908)



Leaburuko Artaetxe baserrian hazia, bost senidetan zaharrena da. Jaiotetxean lan egin zuen gazte garaian. 24 urterekin, Leaburutik Gaztelura ezkondu zen.

Anjela Aurkia Altuna (1924)

Ibarrako Etxetxipin jaio arren, hiru urte inguruekin Leaburuko Arbolatxikia baserria joan zen bizitzera familia guztiarekin. Aita Altzokoa zuen, Jose Aurkia, Leaburuko alkate izandakoa. Ama, berriz, Grabiela Altuna, Argentinan jaioa zen, baina Altzora etorri zen gazte denboran. Anjela, bost senideetan zaharrena izanik, baserrian aritu zen gogor lanean txiki-txikitatik, eskolara joateko ia aukerarik gabe. Ignacio Arrospiderekin ezkondu eta hamar seme-alaba izan ditu.

Maria Esnaola Arregi (1915-2017)



Leaburukoak zituen gurasoak. Leaburuko Baratzondo baserrian jaioa, baserriko lanetan gogor aritu zen txiki-txikitatik baita senideak zaintzen ere, bost senidetan zaharrena baitzen. Egunero-egunero, Leaburutik Tolosara ere jaisten zen esnea banatzera. Eskolarako ia aukerarik izan gabe, herriko ostatuan aritu zen zerbitzari gisa, izebari laguntzen. Bertan bizi izan zuen gerraren hasiera, soldaduak dena txikitzen zutela ikusi baitzuen. 25 urterekin Vicente Garaikoetxearekin Lizartzara ezkondu zen, Basaitzenean baserrira. Bost seme-alaba izan zituen. 96 urte betetzeko sekretua gogor lan egitea dela dio, lanak eman diola osasuna iritzi baitu.

Joxe Iturrioz Iturbe (1924-2017)



Otazu baserrian jaioa, aitaren eta attonaren jaiotetxean eta bertan bizi izan da beti. Bederatzi sendietan hirugarrena izanik ez zuen eskolara joateko aukera handirik izan eta gogor ekin behar izan zion lanari txiki-txikitatik. Baserriko lanetan aritu izan da beti eta baita etxeko sagardotegian ere. 39 urte zituela, Begoña Agirre Azkuerekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan ditu. Ezkondu eta gutxira, Leaburuko udaletxeko zinegotzi lanetan aritu zen bost urte inguruz. Leaburun gerra pasa zenekoa kontatu zigun besteak beste, oso gogoan baitzuen ordukoa.

Javier Ugartemendia

Joxan Ugartemendia

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Aisia

1.1. Dantza-soka Leaburuko festetan

- **Hizlaria(k):** Albizu Irizar, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** LBU-001/029
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:45:07. **Bukatu:** 00:47:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Festa politak ospatzen zituzten Leaburun. Painelua jarrita joaten ziren. Dantzasoka izaten zen. Erroskillak eta ardo goxoa hartzen zituzten. Dantzasokan mutilek neskak dantzara ateratzen zituzten. Horrela neskak eta mutilak elkarrekin dantzan ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Ba oain, oain arte dana laneko kontuk eta eliza kontuk-eta galdetu dizkizut, baiño festak ´e izango zian ba zuen garaian...
- Bai, pesta politt askok gaiñea gure garaien, dantza-soka politt askok eta. Paiñelok earki plantxauta ematen giñon iñork hartzen bagiñun´e. Dantza-soka juteko han. Politt askok, festak bai polittak izaten ziela garai baten.
- Leaburuko [...].
- [...]. Leaburun, bai.
- Ze izaten zan urdun?
- Dantza-sokak! Ta herrikok ateatzen zittuen. Geo neska gaztek ematen zittuen, ta han jarri ta harea atera dantza, zeai, aurrenekoi, geo gaiñentzen sartu ta erdin ta hantxen danak korroka. Ta gero erroskillak ta ardo goxoa ean ta ardoa hartu ta segi, [eseita].
- Neskai...
- Eroskillak...
- Esan, esan.
- Eroskillak-eta jo, dantzatzen giñanean, ez aitzeko hola, Leaburun behintzat holako zea bat zan, ixkiñan beran pasa barreneka ta han exeri ta gure zeak hartzen, erroskillak janez denok.
- Ardua edaten zenuen?
- Ardo pixkat eaten gendun, bai; ttantto bat eaten zan ardoa´re.
- Ez al zuen esaten "Hara! Han emakumia ardua edaten!"
- Ez, ez zan iñor harritzen.
- Ta dantza-soka hua nola izaten zan? nik ez baidet sekula ikusi dantza-soka.
- Dantza-soka esaten zaio, zuk beste dantza igual esango diozue / esangoiozue/. Dantza-sokak mutillak beaknixe ateatzen zuen dantza-soka. Dantzatu dantza-soka, ta dantza-soka... [badakizu] nola dantzatzen dan, ba, estilo hortan. Ez jantzita e, been erropakin.
- Ta gero mutil batek ateatzen zitun neskak.
- Gero mutil... bi mutil juten zien neska bille. Neska... eskatzen zien ze nahi zun neskak "holako ekar zak, hue ekar zak honea" ta hue ekarri ta harekin dantzatu gero, [...], gero harekin atsalden dantzatzeko. Kuadrillak...
- Atsalde guztin?
- E?

- Atsalde guztin?
- Atsalde guztin o [ahal dan]... bai, gehienetan [harekin]. Hala izaten zan ordun.
- Ta zuek neskak ze eoten ziñaten, zai, albon, aber...?
- A! pozik juteko! Ta beste batzutan, jun nahi ez bagendun, [...] papera igual in, baiño pozik juteko. Hoi izaten zan.
- Eta bakarren batek, neskan batek, ez balin bazun nahi, ezetz esateik ba al zeon?
- Bai, bai, esatea hor eoten zan; ezetz esaten zuena ta gogor itten bazuen, ez zuen ematen ez
- Besotik tiraka saiatuko zian baiño.
- Holaxe.

1.2. Dantza-sokarako zapi polita

- **Hizlaria(k):** Albizu Irizar, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** LBU-001/030
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:47:25. **Bukatu:** 00:49:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Dantza-sokara norekin atera sorpresa izaten zen. Neskak zapi polita eramaten zuten eta zapitik helduta egiten zuten dantza. Dantza-sokarako danbolina behar izaten zen. Esku-soinua ere izaten zen arratsaldeetan. Solteko dantzan ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Ta izaten zan “Nik harekin nahiko nitek ba, aber beak ateatzen naiken” ta...?
- Bai, bai.
- Lehenatik hitz einda're bai?
- Ez, ez zan hitz eiten lehen, sorpresa izaten da hoi.
- Hola polittago, e?
- Bai.
- Ta paiñuelotik helduta...
- Bai, hola, paiñolotik helduta. Politta paiñoloa eaman, gero paiñolotik helduta ibiltzen zan. Hoi ez dezue ezautu, e?
- Paiñuelua ze, eskukin ikuitzia zer zan pekatua hoi're?
- Ez, bai zea. Hola moda izaten zan ordun ta paiñolo polit bat jartzen zan behintzat. Paiñolo hartati heltzen zitzairen.
- Paiñuelo hoik ze itten zenittuen, ba, aste hortan bertan eo aurretik erosi o...?
- Etxen izaten zian paiñuelo polittak eta hua gordeta euki hortako.
- Plantxa-plantxa in...
- Plantxa... ondo plantxatuta, dotore-dotore. Halaxe.
- Ze izaten zian paiñuelo txurik o koloretakuak o...?
- A! Denatatik. Koloretan en general
- Ta ze hitz eiten zenuen ordun? derrepente mutillak eskatutako neska albon, ta... zeoze esaten zan o ze? lotsatuta eongo ziñaten ba.
- Ez, lotsa... ze lotsatu behar zendun? lotsatzen giñan, baiño segi.
- Ta ze dantza gehio izaten zan?

- Euskal... dantza dena sueltokoa, suelto izaten zan ordun. En general danboliña behar izaten da zearako're, hoi itteko; danbor... o... danboliña bihar izaten da dantza-soka itteko. Ta gero eskutako soiñua atsaldetan, ta hola. Bi izaten zian ordun: danboliña ta soiñue.

- Zeintzuk etortzen zian ba Leaburua?

- Ez dakit, ez naiz akordatzzen zein etorzen zien. Zahar batzuk zien lehen. Nongok zien... o Villabona aldeko hortakok eo no se, kanpokok behintzat.

2. Euskara

2.1. Bizi osoa euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Albizu Irizar, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: LBU-001/034
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:54:11. **Bukatu**: 00:54:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Beti euskaraz hitz egin du, erdaraz ez daki eta. Eskolan ere euskaraz ikasi zuen. Ez zegoen kanpotarrik. Orain nahasketa gehiago dago.

Transkripzioa

- Zuk beti hitz ein al dezu euskeraz?

- Beti! erderaz ez dakigu ta beharko iñ! Beti euskeraz.

- Urdun ba al zen erderaz itten zun jendeikan?

- Gutxi. Hotan, hotan ez zan izaten.

- Eskolan'e euskeraz in zenduen?

- Dana euskeraz. Bai euskera're bai, hala izaten zan.

- Kanpotarrik'e ez zan izango hemen...

- Kanpotarrik ordun ez, ez, ez, diferentea zan dena. Oain mezkla gehio dao.

- Oain frantsesez ta ingleseaz ta alemanez igual.

- Denatan. Oain ikasi're hala itten due umek, e ! frantsesez ta alemanez ta dana aitzen die /aitzeie/ ikasten. Gure garaian ze ikasiko gendun, egualdi txarretan eskola junda... ze uste den!

2.2. Berorika, zuka edo hika

- **Hizlaria(k)**: Albizu Irizar, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: LBU-001/035
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:54:53. **Bukatu**: 00:56:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Tratamenduak
Euskara » Tratamenduak » Berorika
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena**: Gurasoekin berorika hitz egiten zuten. Apaiza eta medikuari ere berdin. Senideen artean hika hitz egiten zuten. Oraindik ere seme-alabekin hika hitz egiten du eta haiek berarekin zuka.

Transkripzioa

- Ta euskeraz bertan, senidiakin...
- Bai.
- ... aitta ta amakin ta...
- Beti, beti euskeraz. Erderaz... ba al zekien? Gure gurasok erderaz ez zekien, ordea! Ze hitz ein behar zendun ba? Euskeraz danak!
- Senidiakin-ta hika-ta aitzen ziñaten ta gurasuakin...?
- Beori gurasoi. Bai, hala izaten zan ordun. Beori. Ta zuka...
- Ta hika hitz ein ezkeo kasualidadez amai?
- Bai, ordun belarriondokon bat igual [eman], deskuidatzen baziñan. Ondo hitz ein bihar izaten zan ordun.
- Apaizai ta medikuai're beori.
- Baita hoiri're.
- Betenaiyoi're bai?
- Baita. Oain "zu" danai esaten zaie, [verdad]? nik hala esaten diet / esateiet/ behintzat.
- Senidian artian hika?
- Senid... hika seniden arten. Nik'e oaiñ'e neonek hika esaten diet / esateiet/ nere semei.
- Ta alabai?
- Alabai igual.
- Ta beaiek zuri hika in ezkeo?
- Nei... holoko inportantzik ez da izaten, nei... "Zu" esaten die /esateie/ nei, "beori" ez.
- Hoi zuk nahita kanbiatu zendun?
- Keba.
- Holaxe atea zan.
- Atea, kanbiatu gabe.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eskolatik ateratakoan baserrian lanean (LBU-001/002)

Artaetxe baserri ederra zen. Jolas gutxi izaten zituzten. Eskolatik ateratakoan itzulian ibiltzen ziren. Beste lanak ere egiten zituen, sukaldean, aitzurrarekin, garia ebakitzen...

2. Leaburuko eskolara eguraldi txarra egiten zuenean bakarrik (LBU-001/003)

Eskolara eguraldi txarra zenean bakarrik joaten ziren. Eskola Leaburun bertan zegoen. Neskak eta mutilak elkarrekin joaten ziren. Ez du oroitzapen txarrik. Maistrak makilarekin jotzen zituzten zigortzeko. Bere garaikoei denean egurra tokatu zitzaiera pentsatzen du. Orain berriz ongi bizi garela dio.

3. Lehen baserrian garia egiten zuten (LBU-001/004)

Baserrian orain lan gutxiago dago, ez daukate sororik ez garirik. Garia egiteko, lehenengo, laiarekin lurra prestatzen zuten. Esaera zahar batek dio maiatzerako garia izaten dela. Garia Santioetako biltzen da eta gero lotu, meta egin eta harriak jarri gainean. Bero handia zegoenean, zabaldu eta

ganbarara eraman. Garia batzuetan saldu egiten zuten; eta, bestela, etxean irina egiteko. Lasta-balak ere aprobetxatzen zituzten ganaduarentzako.

4. Laberik gabe ogia nola egiten zuten (LBU-001/005)

Gerra ondoren baserrian ogia egiten zuten. Laberik gabe ogia egiteko modua azaltzen du.

5. Gose garaian, taloa (LBU-001/006)

Taloak ere egiten zituzten. Askotan taloa ogiaren ordeiz izaten zuten. Gerra ondoren gose asko izan zen. Gauza asko estraperloan ekartzen zituzten.

6. Gerra bazetorrela ez zetorrela (LBU-001/007)

Gerra aurretik lana gutxitu egin zen eta egun batetik bestera gerra sortu zen. Gerra bazetorrela esaten zuten, baina dirurik ez zegoenez ez zela gerrarik etorriko esaten zen.

7. Gerra hasiera Gaztelun (LBU-001/008)

Gerra hasi zenean, Gaztelun zegoen. Gorriak Leaburun izan ziren. Gero Tolosaldera pasa zen. Soldaduak Nafarroatik etortzen ziren. Etxean egoteko esaten zuten. Beraiek lanean jarraitu zuten, baina ez zuten beldurrik pasa. Nafarrak euskaldunak ziren. Soldaduak esnea eta arrautzen bila etortzen zitzaizkien.

8. Gerrako kontuak; errazionamendua (LBU-001/009)

Leaburutik batzuk erreketeeekin joan ziren. Bertan ez ziren borrokak izan. Abioiak pasatzen ziren. Gerra bukatu zenean, errazionamendua jarri zuten. Olio eta irina Aresotik ekarri behar izaten zituzten. Artoa herrira entregatu behar izaten zen.

9. Estraperloa (LBU-001/010)

Gerran bertako errota itxi egin zuten eta gauez kanpora estraperloan joan behar izaten zuten.

10. Txerria isilka hil behar (LBU-001/011)

Gerran gizonezkoak soldadu eramateko beldurrez izaten ziren. Txerria gauez hil behar izaten zen, isilka.

11. Ezkontza eguneko arropak (LBU-001/012)

Ezkondu eta Gaztelura joan zen. Ezkontza Leaburun egin zuten, argazkirik gabe. Ez zuen arreorik eraman. Ezkontza egun handia izaten zen. Bazkaria etxean egin zuten. Bere burua orraztu zuen eta soineko eta galtzerdi beltzak jantzi zituen. Zapata berriak jantzi zituen. Buruan mantila zeraman. Soinekoa kanpoan josi zioten.

12. Ezkontza eguneko ospakizunak eta opariak (LBU-001/013)

Ezkontza Elizan ospatu zuten, goizez. Ondoren bazkaria, etxafuegoak eta soinua. Bazkaltzeko zer izan zuten kontatzen du. Jende asko etorri zen, familiakoak eta lagunak. Dantzari ibili ziren, soinu-jotzailearen musikarekin. Soltean eta pasodoblean ibili ziren. Ez zuten bidaiarik egin eta haren ordeztzerri bat erosi zuten bildutako diruarekin. Beste erregaloak ontziak, koltxak eta horrelakoak izaten ziren.

13. Maizterrak errenta nola ordaintzen zuten (LBU-001/014)

Neguan ezkondu zen eta elurra egin zuen. Ezkonduta Gaztelura joan zen, pozik. Elketako baserria errentan hartu zuten senarrak eta biek. Maizterrak izan dira. Errenta dirutan ordaintzen zuten. Errenta Gabonetan ordaintzen zen eta diruarekin joaten zenari nagusiak bazkaria eskaintzen zion.

14. Haurdunaldian lanean jarraitzen zuten (LBU-001/015)

Ezkondu eta berehala etorri zitzaizen lehenengo umea. Ilusioz hartu zuen haurdunaldia. Ez ziren medikura joaten. Emagina gertuko amona bat zen. Haurdunaldian lanean jarraitzen zuten. Kezka umea sano etortzea izaten zen. Umea etxean izaten zuten, auzoko emaginak lagunduta.

15. Umeak jaio eta berehala bataiatu (LBU-001/018)

Umeak jaio eta berehala bataiatzen ziren. Bataiatu gabeko umeak linbora joaten zirela esaten zuten. Aingerutan hiltzen zirenak entierro berezia izaten zuten.

16. Umea jaio ondoren Elizan sartzea (LBU-001/019)

Elizara sartu arte ezin zuten kalera atera, baina bera ateratzen zen ura ekartzera. Gero Eliza sartzea egiten zuten. Apaizak otoitz txiki bat egiten zuen. Nahi zenean egin zitekeen Elizan sartzea.

17. Ama ez zen umearen bataiora joaten (LBU-001/020)

Bataiatzera umea amarik gabe eramaten zuten, auzokoek eramaten zuten. Aita pontekoak nahi zuen izena jartzen zion umeari.

18. Emakumeak meza batera eta gizonezkoak bestera (LBU-001/021)

Arreoa nahi zuenak eramaten zuen. Mezara erremediorik gabe joaten ziren. Bi meza izaten ziren egunean. Emakumeak lehenengo mezara joaten ziren. Gizonezkoan bigarren mezara, hamaiketako eginez patxadan ibiltzeko.

19. Elizako ospakizunak (LBU-001/022)

"Primer Viernes" ere ospatzen zuten, komunioa hartzeko eguna. Bederatziturrenak ere izaten ziren, Jesusen bihotzarenak, adibidez. Orduan apaiza herrian bizi zen eta gauza gehiago egiten ziren. Apaizari errespetua edo ikara gehiago zitzaion. Konfesatzera ere joan behar izaten zen. Orain berriz dena libre.

20. Arrosarioa eta konfesioak (LBU-001/023)

Arrosarioa ilunabarretan errezatzen zuten etxean eta barre eginez gero beste misterio bat. Gurasoak oso fededunak ziren. Konfesatzera herrira joaten ziren eta batzuetan Tolosara. Hamar Aginduen arabera konfesatzen zituzten. Apaizari batzuetan gezurra ere esaten zien.

21. Aste Santuko ospakizunak (LBU-001/024)

Aste Santua serioa izaten zen garai hartan: meza, sermoiak, kalbarioak ermitaraino... Kalbarioko bideko gurutzeetan belauniko errezatzen zuten. Ez zegoen San Roke ermitarik, Santo Cristo baizik.

22. Mateo Txisturen istorioa (LBU-001/026)

Apaiz ehiztariaren istorioa kontatzen zuten. Meza ematen ari zela, apaiza elizatik atera omen zen eta desagertu. Ondoren, "Mateo Txistu" izenaz ezagutzen zuten.

23. Erramu bedeinkatuak soroetan (LBU-001/027)

Orain lehen baino trumoi gutxiago izaten dela iruditzen zaio. Santa Cruz egunean erramuarekin gurutze formak egiten zituzten. Erramu egunean bedeinkatzen zituzten. Gurutze haiek soroetan jartzen zituzten eta etxe atarietan ere bai. Askok eguzki lorea ere jartzen zuten etxe atarian.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com